







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %6,5 egin zuen gora maiatzean, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean; batez ere, industriari izandako gorakadagatik, %11,7. Zehazki, siderurgian eta galdagintzan kontsumoa %23,6 igo zen. Zerbitzuaren ere gora egin zuen, %2,2, eta bizitegietan, aldiz, %2,4 jaitsi zen.

Industria alorrean maiatza arteko kontsumo metatuari dagokionez, iazkoaren azpitik segitzen du. Zementuan kontsumoak %36 egin zuen behera, itsas eraikuntza eta konponketan %34, kautxuaren eratorrietan %11 eta beiragintzan %8,4. Siderurgian eta galdagintzan, berriz, gora egin du (4,4).

#### Gas naturala

Maiatzean gas naturalaren guztizko kontsumoak %2 egin zuen gora, 2012ko maiatzean izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %4,1 jaitsi zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena, ordea, %3,9 igo zen.

Maiatza arteko metatutako kontsumoak %4,2 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta.







#### Erregaiak garraioan

Apirilean, garraioan erregaien kontsumoa %7,7 igo zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %2 egin zuen gora eta A gasolioenak %8,4.

2013ko apirila arteko kontsumo metatua %2,9 igo da, iazkoarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %7,9 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %4,3 egin zuen gora.

Iturriak: EEEk prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAEtik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan

Maiatzean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 88,9 milioi kupel izan zen (2012ko maiatzaren aldean, %0,1 igo zen). Hala, urtebetean, Europar Batasunean %5,7 egin zuen behera kontsumoak, 12,8 Mbd kantitatara iritsiz; AEBetan %0,4 jaitsi zen, eta 18,6 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan, aldiz, %4 egin zuen gora, eta 10,4 Mbd kontsumituzera heldu zen.

Munduan, azken sei hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %0,9 igo da, oro har, eta Txinan %3,8; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %4 eta %1,4 jaitsi da, hurrenez hurren.

#### Energiaren kontsumoa Espainian

Gas naturalaren kontsumoa %1,9 jaitsi zen Espainian, maiatzean, 2012ko hil horretan izandakoaren aldean; eta urtearen hasieratik metatutakoak %8,4 egin du behera.






Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen (%3,3), 2012ko maiatzean izandakoarekin erkatuta, eta urte mugikorrari dagokion metatua %3,4 jaitsi da.

Errepedeetan erregaien kontsumoak %8,7 egin zuen behera martxoan, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %10,3 jaitsi zen, eta %8,4 gasolioen kasuan. Urte mugikorrari dagokion kontsumo metatua %8,7 egin du behera (%10,7 gasolinena eta %8,2 gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %5,6 egin zuen gora martxoan, 2013ko kontsumo metatua %7,7 jaitsi bada ere.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EI Aren datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 103,3 \$ (79,3 €) izan zen maiatzean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %4,7 egin zuen behera (%0 eurotan).

#### Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %2,2 igo zen apirilean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 26,3 €/MWh izan zen. Aipatzekoa da martxoan izandako ezohiko gorakada (37,5 €/MWh). Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %5,7 egin zuen behera apirilean, iazko hil berean izandakoaren aldean, eta 28,1 €/MWh iritsi zen.

#### Ikatzaren prezioa

Apirilean, ikatzaren prezioa 84 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %7,8 jaitsi da.

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %0,3 egin zuen behera maiatzean, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 43,4 €/MWh iritsi zen, hi hilabetez prezio baxuak izan ondoren.

#### Erregaien prezioa

EAEn, apirilean, gasolioaren prezioa 1,32 €/l izan zen eta gasolinarena 1,41 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %2,9 eta %4 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

#### CO<sub>2</sub>-ren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioak beharrezko joerari eutsi zion apirilean, 3,1 €/t; 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %59 egin zuen behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.